


EKOSISTEMAK

1. EKOSISTEMEN OSAGIAK

Ekosistema bat bertan bizi diren izaki bizidunen multzoak (biozenosia edo komunitatea) eta inguruneke ingurumen-faktoreek (biotopo) osatzen dute. Ekosistemaren parte dira, baita ere, bi osagai horien artean dauden elkarreraginak.



Ekosistema = Biotopoa + Biozenosia + Beraien arteko elkarrekintzak

1.1 JARDUERA

Ekosistemaren osagai bakoitzaren parentesia K bat idatzida komunitatearen edo biozenosiaren parte bada, eta B bat biotopoaren parte bada.

URA	LANDAREAK
ANIMALIAK	TENPERATURA
HARRIAK	MIKROORGANISMOAK
HAIZEA	EGUZKI-ERRADIAZIOAK

1.2 JARDUERA

Esan esaldi hauetariko bakoitza okerra edo zuzena den:

- Biotopoa leku batean bizi den izaki bizidunen multzoa da.
- Leku bateko biozenosia komunitate izena ere hartzen du.
- Ekosistema biotopoa eta biozenosia soilik osatzen dute.

2. EKOSISTEMEN FAKTOREAK

Ekosistema baten biotopo eta biozenosiaren osagaiek bertan bizi diren izaki bizidunen garapenari eragiten diote. Osagai horieri ekosistemaren faktorean deritze.

Faktore abiotikoak	Faktore biotikoak
Ekosistemaren faktore fisiko-kimikoak	Ekosistema batean bizi diren izaki bizidunen arteko harremanek eragindakoak
• Klimatikoak (tenperatura, hezetasuna, prezipitazioak...) • Fisikoak (argia, presioa...) • Kimikoak (lurzoruaren konposizioa, uretan disolbatutako substantziak, gazitasuna...)	• Erlazio intraespezifikokoak (espezie barneko lehia, laguntza...) • Erlazio interespezifikokoak ◦ Bi espezieak onuradunak ◦ Espezie bat kaltetua beste onuraduna ◦ Batentzat onuragarria bestearentzat neutroa.

2.1 JARDUERA. Erantzun galderak:

- Zer dira ekosistemen faktoreak?
- Zein bi motatakoak izan daitezke?
- Faktore abiotiko motak izendatu:
- Izaki bizidunen arteko erlazio motak izendatu:

2.2. JARDUERA

Faktoreak	ABIOTIKOAK			BIOTIKOAK
	Klimatikoak	Kimikoak	Fisikoak	
Tenperatura				
Elikagaiarengatik lehia				
Argia				
Gazitasuna				
Kumeak zaintzeko lankidetzak				
Lurzoruaren konposizioa				
Prezipitazioa				
Parasitismoa				